

"Gure eskubideen defentsan" HAURREN ADIERAZPENA

NAFARROAKO PARLAMENTUA

2014ko azaroaren 20a

Egun on, parlamentari jaun-andré agurgarriok. Gaur, azaroaren 20a, egun berezia da. Parlamentua neska-mutilez betetzen da, hainbat ikastetxetako ikasleak etorri baikara gure eskubideak defendatzera eta, zehazki, horietako batez baliatzera, parte hartzeko eskubideaz, gure ahotsa entzun dadin eta gure iritziak kontuan har daitezzen. Gaurkoa urtebetetze bat bezalakoa da ia. Eta "ia" diogu, gaur ospatzen duguna ez delako'oso jai-girokoa.

Orain dela urte batzuetako egoerari begiratuta, haurrek ez zuten eskubiderik eta ez zuten bizimodu eta garapen osasungarririk. Indarkeria, tratu txarrak eta esplotazioa pairatzen zituzten, eta bizimodu negargarria zeukaten, maitasunik gabea, oinarrizko osasun baldintzarik gabea, identitaterik gabea. Baina gaur gogoratzen dugu duela 25 urte konpromiso garrantzitsu bat hartu zela, arrastoa uzten duten horietakoa: Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa, gure eskubideei buruzkoa, izenpetu zen. Herrialde askok eskubide horien alde lan egiteko konpromisoa hartu zuten, neska-mutil guztien alde, inongo bazterketarik gabe. Honakoen aldeko borrokan inplikatu ziren: bizitza, biziraupena, garapena, hezkuntza, osasuna, berdintasuna, identitatea, gerra kasuetan babesa ematea, desgaituei babesa ematea eta familien alde jokatzea. Konpromisoa benetakoak izaten diren horietakoa izan zen, edo hala adierazi izan digute. Eta herrialdeen konpromiso hori tarteko azken 25 urte hauetan hobekuntza ugari izan badira ere, egiazki lortu ote da izenpetu zuten hura? Aurrera egiten jarraitzen dugu, ala atzerapausoak ematen ari dira?

Eskolan gure eskubideak, mundu osoko haurronak, irakurri ditugu. Ez genekien eskubiderik genuenik. Irakurri, lantaldeetan lan egin eta elkarrekin solas egin ondoren, gauza oso garrantzitsu batez konturatu gara: guk uste genuen eskubide-gabezia Nafarroatik kanpo, Espainiatik kanpo baizik ez zela gertatzen, herrialde oso urrunetan. Eta ez dago oso urrutira joan beharrik ikusteko eskubide horietako batzuk, badauzkagun arren, ez direla betetzen. Iruñean, urrunago joan gabe, badaude haurrak pobreziaaren atalasean bizi direnak. Haien familiek ez dute baliabiderik haiek behar bezala elikatzeko, eta jaten duten bakarra ikastetxeko jantokian ematen dietena da. Eta aukera hori dute eskolara doazenean soilik. Eta asteburu, jai-egun eta oporretan, ez al dute jaten? Konturatu gara, guk geuk, gure hurbilean, beste batzuk baztertzen ditugula desberdinak izateagatik, desgaitasunen bat dutelako, diseinuzko arroparik ez daramatelako, beste kolore bat dutelako edo puntako teknologia-gailurik ez dutelako. Konturatu gara jarraitzen dugula "soilik mutilentzat" edo "soilik neskentzat" diren jokoetan jolasten, eta batzuetan gure hizkuntza ez dela guztiz berdintasunezkoa. Gure maila ekonomikoa ez dutenak baztertzen ditugu, gaizki edo arraro begiratzen diegu gureaz beste pentsamolde bat dutenei, gureaz beste erlijio bat dutenei. Irakurri dugu oraindik ere neska-mutil askori tratu txarrak ematen zaizkiela, eta horietako askok ez dutela egunero jateko modurik. Hori hemen gertatzen bada, nola egonen dira beste herrialde batzuetan beren gurasoen laguntzarik ez duten neska-mutilak edo eskolara joaterik ez dutenak, lan egitera behartuta

daudenak, beren baimenik gabe ezkonarazten dituztenak, tratu txarrak jasaten dituztenak edo beste kultura batekoak izateagatik hil ere egiten dituztenak?

Zer egin dezakegu? Guk, Nafarroako haurrok, asko egin dezakegu: edozer dela-eta gutaz desberdina dena onartu, berarekin jolastu, bera ezagutzen ahalegindu; etxean gehiago lagundu dezakegu, etxeko gauzak amak edo aitak bakarrik ez ditzan; eskerrak eman behar ditugu daukagunagatik, gehiago eskatu gabe, eta ikastetxera pozik joan. Norbaitek gure ikaskide batekin oker jokatzeko badu, ez dugu isildu behar, zeren eta horrela gainerakoei erakusten baitiegu nola jokatu behar den. Gure burua aldatzen badugu, besteak anima ditzakegu haiek ere aldatzen joan daitezen.

Nafarroako Parlamentuak eta Gobernuak ere asko egin dezakete, hezkuntzan eta osasunean gehiago inbertituz, familiarik gabeko haurrik egon ez dadin edo haur desgaituek hobera egiteko behar dituzten laguntza guztiak izan ditzaten. Jarrai dezakete harrerako, integrazio eta elkartasunaren aldeko eta generoko bazterketaren aurkako kanpainak egiten. Nahi genuke entzuten eta ikusten jarraitu gauza ugari egin ditzakegula hemen, oraindik. Enpresei ere laguntza eman ahal diete, dauzkaten ordutegiak hobekiago izan daitezen eta, hartara, guraso askok beren seme-alabekin egoteko parada izan dezaten. Kontuan har ezazue haurtzaroaren interes gorena, edozein erabaki, lege edo politika onesten duzuenean.

Badakigu Nafarroaren bereizgarria elkartasuna dela, baina behar adina laguntzen ote diegu garapen bidean dauden herrialdeei? Ez legoke gehiago inbertitzerik? Seguru gaude baietz, diruaren parte handiagoa bidera dezakegula guztiontzako mundu egoki eta zuzenago bat sortzera. Urtero diru kopuru finko bat, aldatzen ez dena, zeren eta pobrezia eta desberdintasuna ez baitira aldatzen; alderantziz, handiagoak dira krisiaren ondorioz. Guk baino gutxiago dutenekin konpromiso iraunkorrago eta handiago bat izan dezazuela eskatzen dizuegu. Zuen ereduarekin eta inplikazioarekin ikasbidea ematen diguzue.

Pobreziarekin, hezkuntza-ezarekin, genero-desberdinkeriarekin eta, oro har, bazterkeriarekin amaitu behar dugu. Guztion zeregina da. Gogoan izan dezagun aurten bakearen Nobel saria irabazi duenak, Malalak, haur guztien hezkuntzarako eskubidea defendatzeagatik tiro bat jaso zuela buruan eskolara zihoala, neska izate hutsarengatik. Baina, beharrezkoa ote da buruan tiro bat jasotzea bakearen Nobel saria irabazteko? Beharrezkoa al da Indian Ghandiren proiektuari jarraitzea haurrak eskolara joan daitezen eta ez daitezen kalean egon diru eske edo baldintza negargarritan lan egiten? Sinetsi behar dugu benetan, seriotan, mundu hobeko bat eraiki dezakegula: gure esku dago hori errealitate bihurtzea. Lagunduko al diguzue? Hitzarmen bat, konpromiso bat, eskatzen dugu, benetakoa den horietako bat. Zuen txanda da orain.

Eskerrik asko guri entzuteagatik. Espero dugu bost urteren buruan esan ahal izatea gauzak asko aldatu direla eta guztia gaur, 2014ko azaroaren 20an, eskatzen dizuegun hitzarmenari esker izan dela.

IRUÑEKO SANTA TERESA DE JESÚS IKASTETXEKO LEHEN HEZKUNTZAKO
5. MAILAKO IKASLEAK

IRUÑEKO HEGOALDE IKASTOLAKO LEHEN HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO
IKASLEAK